

JEFFREY EPSTEIN SEXU-ESKLABOTZA, ABERATSAK, BOTEREA, XANTAIA ETA... MOSSADEN BESO LUZEA

Abuztuaren 10ean New Yorkeko Metropolitan espetxean hilda azaldu zen Jeffrey Epstein 66 urteko finantzari aberatsa, ingelesez *sex trafficking* delitua –emakume esklaboen trafikoa– egiteagatik bigarren ezagututako behar zutena. Epaileak suizidiotzat jo du heriotza, hilketatzat Epsteinen abokatuek. Konspiranoiko hutsak ote dira Epstein betiko mutu nahi zuten asko zirela diotenak? Bere heriotzak oroitarazten du orain dela 27 urte Robert Maxwelli gertatutakoa.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

Dirua –baina diru asko–, sexua, boteretsuen ustelkeria, zerbitzu sekretuak eta hilketak gutxi baina apartak biltzen dituen intrigazko kontakizuna nahi? Ez duzu liburukote bati haginka ekin beharrik: irakurri ingelesezko Wikipedian *Jeffrey Epstein* sarrerara, ondoren *Ghislaine Maxwell* eta bukatzeko *Robert Maxwell*. Hona laburpena, atzekoz aurrera.

1991eko azaroan Kanariar uhartee-tan itota hil zen –hala ebatzi zuen polizia espainiarrak– Robert Maxwell, prentsa britainiarraren jabe handietakoa eta bi legegilditan parlamentari laborista izana, 68 urterekin. 1923an Txekoslovakiako familia judu batean sortua, 1940an Holokaustotik ihes egin eta atzerriko armada txekoslovakia-rran borrokatu zen estreina, gero frontean armada britainiarrean jarraitzeko: kapitain graduarekin amaitu zuen II. Mundu Gerra.

Bi urtez zerbitzu sekretu britainiarren interprete lanetan aritu zen Berlin okupatuan, bere harreman sarea josiz Erdi Europan ari ziren KGBko agenteen artean,aldi berean Israel estatu berriaren agintariei lagunduz. Armada utzirik, edizio eta prentsaren munduan barnatu zen, Springer Verlag argitaletxe zientifiko alemanaren banaketa hartuta Ingalaterra eta AEBetarako.

1964ko hauteskundeetan Alderdi Laboristarekin aurkeztu eta parlamentari postua lortuko zuen, 1970a arte edukiko zuena. Laster iritsiko zen Maxwell Com-

munications Corporation holdingaren sorrera eta hortik egin zen Mirror prentsa taldearen jabe: sei egunkari, tartean *The Mirror* ospetsua. Hedabide handien ugazaba posiziotik muturra sartu zuen futbol klubaren munduan eta harremanak josten jarraitu zuen munduko agintarien artean, izan François Mitterrand presidente frantsesarekin edo Errumaniako Nicolai Ceaucescurekin.

Beti Israelgo lagunei lotua, 1986an Maxwellek Tel Aviveko gobernuari diskretuki jakinarazi zion Mordechai Vanunu ingeniari nuklearrak bere egunkarietako bati azaldu zizkiola ordura arte sekretua zen Dimonako erreaktore atomikoaren xehetasun garrantzitsuak. Erreportajea argitaratuko zen, bai, baina aurretik zerbitzu sekretu israeldarrekin engainatuta –espia emakumezko eder bat tartean, Cheryl Bentov– Erromaraino eramanez, bahitu eta Israelen espetxeratzea lortuta.

Robert Maxwell 1991n hil zenean, “espainolek autopsia txapuzero bat egin zuten”, idatzi berri du garai hartan Kanarietan ibili zen Jacques-Marie Bourget kazetari frantses beteranoak. “Urtebete beranduago lortu nuen eskuratzea Maxwelli egindako bigarren autopsia, Tel Aviven Shin Bet kontraespionatza zerbitzuak egin ziona eta oso bestelako musika zeukan: aseguru-etxeek behartuta kasurako izendatu zuten forentse britainiarrak garbi adierazi zuen Maxwell asesinatu egin zutela, gorpuak kolpe eta ziztaden markak zeuzkala”.

Ordurako Maxwell kiebra jotzeko puntuan zegoen eta zorrei aurre egiteko dirua lapurtu behar izan zuela bere konpainien enplegatuen pentsio funtsetatik eta dirua itzuli ahal izateko, dio Bourgetek, egindako faboreak kobratzera jo zuen bai israeldarregana eta bai errusiarregana.

Maxwellek Kanarietan bere burua bota ote zuen putzura ala –Bourgetek eta beste batzuk uste duten moduan– CIAk eta Mossadek erabaki zuten arriskutsu bihurtzen ari zitzaizen adiskidea kalitza?

LADY GHISLAINE

Kontua da Maxwell kareletik uretara erortzen ikusi zuen itsasontziak izena zuela *Lady Ghislaine*, jauntxoaren alaba maitearen omenez eta Ghislaine Maxwell izan dela... Jeffrey Epsteinen andre-gaia eta hurbileneko laguntzailea, honek sexu-esklabotzat erabilitako nesketako batzuek salatu dutenez.

64 urterekin hil berri den Jeffrey Edward Epstein ere familia judu bateko semea zen. Gaztetan matematika irakasle hasi ostean, banka eta finantzetara egin zuen jauzi. 1976an hartu zuten Bear Stearns inbertsio banku mitikoan: mitikoa, 2008ko krisi handian eroritako sonatuenetakoa izango zelako. Baina hori askoz geroago gertatuko zen. Tartean, Epstein bilakatu zen finantzetako izar eta azti, 1981ean bere kontura jarri eta IAG Intercontinental Assests Group sortuta, porrot egindako enpresei dirua ateratzen berezitarra.



GAILURREAN ZIRENEAN

EZKERRETIK HASITA, ROBERT MAXWELL, JEFFREY EPSTEIN ETA GHISLAINE MAXWELL.

Bere bezeroetako bat izan zen Adnan Khaxoggi enpresaburu saudia, arma trafikoan aberastua eta garai haietako eskandalu handietakoa izan zen *Iran-Contra* aferan sartuta ibili zena, AEBetako armak bai Nikaraguako kontra-iraultzaileei eta bai iraniarrei salduz, Israel tarteko.

Epsteinek bere inguruan esana zuen inteligentzia zerbitzuetan ere ari zela, erakutsiz pasaporte austriar bat gezurrezko izen bat eta jabearen bizilekutzat Saudi Arabia zeramatzana. Pasaporte hori poliziak aurkitu dio aurtengo uztailean bigarren ez atxilotu eta etxea miatu diotenean. Baina Epsteinek haizea alde izan du urte luzez.

Finantzari espekulatzailerak arrakastatsua izan zen, ez beti bere bezeroei zerbitzurik onena egin zielako baizik eta espekulazioan gertatzen diren

istripuetatik –tartean *Ponzi* ereduko iruzurretatik– beti onik irteten zelako. Inbertsio funtsen munduan izena egin zuen, bezero eta sozioen artean zeuzkan jende boteretsuak, hala nola Ehud Barak Israelgo lehen ministro ohia. Baina justu 2007-2008ko krisitarraren bezperetan lainotu zen Epsteinen izarra.

2005eko salaketa batetik abiatuta, poliziak bildu zituen Epstein neskato gazte eta adin gabeen predatzailea zela erakusten zuten dozenaka lekukotasun eta kriminalak berak grabatu arazitako argazki eta bideoak ere bai. Epailearekin 11 hilabeteko espetxealdia negoziatu zuen... bere jauregian eta bizimodu oparoari uko egin barik bete zuena, inpunitateak ematen duen harrokeriaz.

Baina emakume gehiagoren salaketek jarraitu zuten bata bestearen on-

dotik... 2019ko uztailearen 6an Epstein berriro atxilotu zuten arten.

Wikipediak ondo dokumentatuta dioenez, Epsteinek bere eraikinetako puntu askotan zeuzkan jarrita kamerak, antza denez adin txikiko neskekin jende famatuak egiten zituztenak grabatu eta gero xantaia egin ahal izateko: poliziek CD pila batean aurkitu zituzten irudiok, ondo sailkatuta. Jende gehiegi Epstein desagerrarazteko irrikaz. Espetxean lehen erasoak jasan edo suizidio ahalegina eginda, bost egun geroago hil zen, bakarrik ziegan, espetxearen kamerak deskonektatuta eta funtzionarioak lotan zeudela.

Inork ez du ikusi geroztik Ghislaine Maxwell, Robert Maxwellen alaba, Jeffrey Epsteinen andregai izana, heren-sugeari neskak gazte eta adin gabeak zerbitzatzen zizkiona. ●



ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f 